

**BANAKAKO BASKEPENSIONES  
BGAE BORONDATEZKO  
GIZARTE-AURREIKUSPENEKO  
ERAKUNDEAREN  
ESTATUTUAK**

2021eko apirila

## AURKIBIDEA

1. artikulua: IZENA ETA APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDEA
2. artikulua: HELBIDEA
3. artikulua: NORTASUN JURIDIKOA ETA JOKATZEKO GAITASUNA
4. artikulua: XEDEA
5. artikulua: LURRALDE-ESPARRUA ETA PERTSONALA
6. artikulua: JARDUERAREN HASIERA ETA IRAUPENA
7. artikulua: BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK
8. artikulua: BAZKIDE SUSTATZAILEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK
9. artikulua: BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK
10. artikulua: FINANTZA FUNTSAK ETA BERMEAK
11. artikulua: GIZARTE-AURREIKUSPENEN PLAN BAKOITZARI ATXIKITAKO ONDAREA
12. artikulua: ONDAREAREN KUDEAKETA, GORDAILUTZEA ETA ZAINZTA
13. artikulua: ESTALITAKO KONTINGENTZIAK
14. artikulua: BAZKIDE ARRUNTEN EKARPENAK
15. artikulua: EKARPENEN KITAPENA
16. artikulua: PRESTAZIOAK
17. artikulua: ERAKUNDEKO KIDE IZATEKO BALDINTZAK
18. artikulua: BAZKIDE ARRUNTAREN IZAERAREN GALERA
19. artikulua: GOBERNU-ORGANOAK
20. artikulua: GOBERNU-ORGANOEN ETA BERTAKO KIDEEN ERANTZUKIZUNA
21. artikulua: GOBERNU-ORGANOETAKO KIDE IZATEKO BALDINTZAK
22. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN OSAERA
23. artikulua: BATZAR NAGUSIKO KIDEAREN IZAERA-GALERAREN KASUAK
24. artikulua: BATZAR NAGUSI MOTAK
25. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIAK, ERAKETA ETA HITZARMENAK
26. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN HITZARMENEN AURKARATZEA
27. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN ESKUMENAK
28. artikulua: GOBERNU-BATZARRAREN OSAERA ETA BERTAKO KIDEEN IZENDAPENA
29. artikulua: KARGUEN IRAUPENA ETA PLAZA HUTSEN BETETZEA
30. artikulua: GOBERNU-BATZARREKO KARGUAK

31. artikulua: GOBERNU-BATZARRAREN DEIALDIAK, ERAKETA ETA HITZARMENAK
32. artikulua: GOBERNU-BATZARRAREN ESKUMENAK
33. artikulua: GOBERNU-BATZARRAREN HITZARMENEN AURKARATZEA
34. artikulua: PRESIDENTEAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK
35. artikulua: P RESIDENTEORDEAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK
36. artikulua: IDAZKARIAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK
37. artikulua: BATZORDEKIDEEN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK
38. artikulua: ZUZENDARITZAREN ESKUMENAK ETA FUNTZIOAK
39. artikulua: ADMINISTRAZIO-GASTUAK
40. artikulua: GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK
41. artikulua: HUTSEGITEAK
42. artikulua: ZIGORRAK
43. artikulua: ZIGORRAK EZARTZEKO PROZEDURA
44. artikulua: DESEGITEA
45. artikulua: LIKIDAZIOA

## I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### **1. artikulua: IZENA ETA APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDEA**

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen izena **“BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAE”** (“Erakundea”) da.

Bere jarduketa une bakoitzean indarrean dagoen lege-araudian, arautegian eta maila baxuagoko gainerako xedapenetan ezarriaren mende egongo da, baita estatutu hauen (**"Estatutuak"**) eta Erakundeak une bakoitzean osa dezakeen gizarte-aurreikuspeneko plan ezberdinak arautzen dituzten arautegien mende ere.

#### **2. artikulua: HELBIDEA**

Erakundearen egoitzaren helbidea Garibai kalea, 15 Donostia (Gipuzkoa) da.

#### **3. artikulua: NORTASUN JURIDIKOA ETA JOKATZEKO GAITASUNA**

Erakundeak nortasun juridiko askea dauka eta guztiz gai da agindutako helburuak betetzeko, bazkide sustatzailea kontuan hartu gabe.

Ondorioz, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa dauka, eta legezko xedapenek ezarritako mugak –zeintzuen baitan osatzen den– eta Estatutu hauetako muga zehatzak besterik ez dauzka.

#### **4. artikulua: XEDEA**

Erakundeak honako printzipio informatzaileak eta funtsezko helburuak dauzka:

- a) Bazkideei eta onuradunei Estatutu hauetako artikuluen araberako pentsio eta prestazio ekonomikoak asetzea, honako egoera hauen aurrean: erretiroa, lanerako ezintasun iraunkorra edo baliaezintasuna, heriotza, gaixotasun larria, luzaroko langabezia eta mendekotasuna.
- b) Erakundeko bazkide edo kide izateko aukera edozein pertsona fisikori irekitzea eta zabaltzea, soilik Estatutu hauetan jasotako mugekin eta eskubide eta betebeharrak berdinekin, egindako ekarpenei eta egoki diren prestazioei dagokienez.
- c) Irabazi asmorik gabe jardutea, ordezkariek Erakundearen burutzen dituzten funtzioak doakoak izanik. Aurrekoa hala izanik ere, gobernu-batzarreko kideei ordainsariak edo gastuen konpentsazioak esleitu ahal izango zaizkie, funtzio betearazleak edo administratiboak egiten dituztenean.
- d) Kudeaketaren eta emaitzen erabateko gardentasun, informazio eta komunikazio politika bati jarraitzea, Erakundearen gobernu-organoetan (**"Gobernu-organoak"**), bazkideei eta onuradunei partaidetza demokratiko bat eskainiz.

- e) Gobernu-organoen egitura eta osaera demokratiko bati eustea, organo horien hautaketa gizarte-kolektiboaren ordezkagarria izatea eta bertako kideek euren funtzioak burutzeko beharrezko informaziorako sarbidea izatea xedatuz.
- f) Ekarpenen araubidearen bidez, bazkideen gizarte-aurreikuspeneko aurrezkoa sustatzea, horiekin eta inbertsioetako etekinekin, kontingentziak estaltzeko beharrezko hornikuntza teknikoak eratzeko aukera izateko.
- g) Indarrean dagoen legedian ezarritako ekonomia, finantza eta zerga araubidearekiko mendekotasuna.
- h) Erakundearen eta banakako gizarte-aurreikuspeneko planen baliabideak inbertitzea, segurtasun, errentagarritasun, likidezia, dibertsifikazio, dispertsio eta diru-kongruentziaren irizpideei eta bere helburuari egokitutako epeei jarraikiz, eta beti, honako irizpide hauen arabera: baliabideen kudeaketaren eraginkortasuna, efizientzia eta berrikuntza; aktiboen egitura, mugak eta ezaugarriak indarrean dauden xedapenetara egokitzea.
- i) Erakundearen eta txertatutako banakako gizarte-aurreikuspeneko planen kaudimena eta finantza-oreka zaintzea.
- j) Administrazio eta kontabilitate antolakuntza egoki bat izatea, antolakuntzari dagozkion barne-kontrolako prozedurak izanik, eta funtzionamendu ona eta Erakundearen bazkide arruntei eta onuradunei eskainitako zerbitzua zainduz.

Erakundeak banakako gizarte-aurreikuspeneko plan ezberdinak txertatu ahal izango ditu garatzeko, inbertsio-irizpideen arabera ezberdinduko dira eta ondare bereziak izango dituzte.

## **5. artikulua: LURRALDE-ESPARRUA ETA PERTSONALA**

Jarduketa- eta jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegora mugatuta dago.

Erakundearen eremu pertsonala bazkide edo onuradunaren lege-izaera hartzen duten pertsona fisiko guztiek osatzen dute, Estatutu hauetan, gizarte-aurreikuspeneko planetako prestazioen arautegietan eta aplikatu beharreko araudian ezarriari jarraikiz.

## **6. artikulua: JARDUERAREN HASIERA ETA IRAUPENA**

Erakundeak Eusko Jaurlaritzako Sail Eskudunaren baimena jaso ondoren ekin zien bere jarduerari, hau da, 1997ko martxoaren 12an. Erakundearen iraupena mugagabea da.

## **II. TITULUA**

## **BAZKIDE ETA ONURADUNENA**

### **I. ATALBURUA**

#### **MOTAK ETA EZAUGARRIAK**

#### **7. artikulua: BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK**

7.1 Honako bazkide-mota hauek daude (aurrerantzean, batera, "**Bazkideak**):

a) Bazkide sustatzailea:

Bazkide sustatzailea Kutxabank, S.A. da, bere asmo eratzaillearekin eta hasierako ekarpenekin borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde baten sorreran eta eraketan parte hartzen duena, eta bere Gobernu-organoak osatzen dituena, indarrean dagoen araudiaren araberrako Estatutuetan ezarritako moduan.

Kutxabank, S.A.-ren egoitza Bilbon (Bizkaia) dago, On Diego Lopez Haroko kale nagusian, 30-32 zenbakietan; Bizkaiko Merkataritza-erregistroan inskribatuta dago 5.226 liburukian, 1 folioan eta BI-58.729 orrian, eta A-95.653.077 IFZ dauka ("**Bazkide sustatzailea**").

b) Bazkide arruntak edo zenbakizko bazkideak:

Bazkide arruntak edo zenbakizkoak beraiantzat edo euren onuradunentzat prestazioren bat lor dezaketenak dira, une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarriari jarraikiz ("**Bazkide arruntak**").

Bazkide arrunten artean honako modalitate hauek egon daitezke:

- Bazkide arrunt aktiboak: beraiantzat edo euren onuradunentzat prestazioren bat jasotzeko eskubidea dutenak, beraiek edo hirugarrenek beraien izenean egindako diru-ekarpenen bidez ("**Bazkide arrunt aktiboak**").
- Etendako bazkide arruntak: bazkide aktibo izan zirelarik, ekarpenik egiten ez duten bazkideak, ez beraien ekarpenak, ez hirugarrenek beraien izenean eginak ("**Etendako bazkide arruntak**").
- Bazkide arrunt pasiboak: bazkide aktibo izan zirelarik, prestazioaren titular zuzen izatera igarotzen diren pertsonak, kontingentzia gertatu ondorengo subjektu babestu gisa ("**Bazkide arrunt pasiboak**").

7.2 Halaber, Erakundeak onuradunak txertatu ahal izango ditu; onuradunak, eragilearekiko harremana dela eta, kontingentzia jazo ondoren, prestazioaren titular izatera igarotzen diren pertsona fisikoak dira ("**Onuradunak**").

## **II. ATALBURUA**

### **ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **8. artikulua: BAZKIDE SUSTATZAILEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

##### 1 - Bazkide sustatzailearen eskubideak:

- a) Gobernu-organoetako karguak aukeratzea eta besteek bera aukeratu ahal izatea, Estatuetan edo prestazioen arautegietan jasotzen denaren arabera, ordezkaritza bat izanik, Erakundeko Gobernu-organoak osatzen dituzten pertsona fisikoak izendatuz.
- b) Erakundearen jarduera, funtzionamendu eta finantza-egoeraren berri izatea, garaiz eta behar besteko xehetasunekin.
- c) Erakundearen helburuekin lotutako neurriak edo ekintzak proposatzea, bere funtzionamendua hobetzeko asmoz.
- d) Erakundeko Gobernu-organoetako hitzarmen eta erabakien aurka egokitzat hartzen dituen baliabideak eta erreklamazioak aurkeztea.
- e) Gobernu-organoetan parte hartzea, bere kabuz edo ordezkari baten bitartez, Erakundeko Estatutuei eta txertatutako gizarte-aurreikuspeneko planetako araubideei jarraikiz.
- f) Erakundeko estatutuak eta txertatutako gizarte-aurreikuspeneko planen eta Gobernu-organoen eraketaren arautegiak eskuratzeko aukera izatea, baita estatuetan eta arautegietan egindako aldaketen eta Gobernu-organoen eraketan jazotako aldaketen berri izatea ere.
- g) Legezko arauetan eta Estatutu hauetan aitortutako gainerakoak.

##### 2 - Bazkide sustatzailearen betebeharrak:

- a) Ezarrita dauden edo etorkizunean ezarriko diren legezko, arautegietako eta estatuetako xedapenak zorrotz betetzen direla ziurtatzea.
- b) 50.000 euroko hasierako ekarpena betetzea, mutuaren funtsaren kontzeptu gisa.
- c) Gobernu-organoek modu baliodunean hartutako erabakiak betetzea.
- d) Estatutu hauetan eta prestazioen arautegietan ezarritako ekarpenak betetzea.
- e) Aplikatu beharreko araudiak edo Estatutuek ezarritako beste edozein.

## **9. artikulua: BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

1- Bazkide arrunten eta Onuradunen eskubideak:

- a) Erakundearen egoeraren berri izatea, indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan eta epean, eta zehazki, honako hauek eskuragarri izatea:
  - i. Erakundearen Estatutuak, gizarte-aurreikuspeneko planaren arautegia eta Gobernu-organoen osaera.
  - ii. Estatutuetan eta arautegietan jazotako aldaketak, eta Gobernu-organoen osaeran izandako aldaketak.
  - iii. Inbertsio-printzipioen adierazpena, zeinak arrisku-profila barne hartu beharko duen, inbertitzen duen aktiboak eta kudeaketan erabilitako teknikak direla eta. Inbertsioak egitean, Erakundeak gizartearekin, ingurumenarekin, etikarekin edo gobernu korporatiboarekin lotutako alderdiak kontuan hartzen dituen jakitea. Kontuan hartzen ez baditu, horretarako arrazoiak jakinarazi behar ditu. Esparru honetan politika bat daukanean, gutxienez, deskribapen labur bat emango du, bazterketa, integrazio edo inplikazio estrategiak zehaztuz. Zein aktibotan aplikatzen den ere aipatuko du, eta baita gizartearekiko arduratsua den inbertsioaren politika honen aplikazioa egiaztatzeko modua ere.
  - iv. Aplikatutako administrazio-gastuaren portzentajea, balore higitarren salerosketako bitartekotzaren portzentajea eta balore horien zorroaren errotazio-ratioa.
  - v. Erakundearen kontu-ikuskarien nortasuna.
  - vi. Gizarte-aurreikuspeneko planaren ondareak, ezarritako urteko errentagarritasun-helburuek eta azken hiru ekitaldian, edo plana dagoenetik itxitako ekitaldietan zehar, hiru baino txikiagoa bada, lortutako errentagarritasunek izandako bilakaera historikoa. Errentagarritasun historikoari buruzko informazioak berriazko adierazpen bat izan behar du, aipatu errentagarritasunak etorkizuneko errentagarritasunik bermatzen edo zehazten ez duela adierazten duena. Ondore horietarako, errentagarritasunaren kalkulua indarrean dagoen araudian ezarriaren arabera izango da.
  - vii. Ekarpenei eta jaso daitezkeen prestazioei aplikatu beharreko zerga-araubideari buruzko informazioa.
  - viii. Erakundeko Gobernu-organoen eta gizarte-aurreikuspeneko planaren aurrean egindako edozein erreklamazioaren defentsa egiteko eskubideari buruzko informazio guztia.
  - ix. Etorkizuneko pentsio-eskubideak balioztatzeari buruzko informazioa, BGAE arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak ezarriarekin bat etorriz.



- x. Ekarpen finkoa duten gizarte-aurreikuspeneko planetan txertatutako Bazkide arruntei eta Onuradunei bakarrik dagokienez, gutxienez, sei hilez behin, Erakundeak ziurtapen bat bidaliko du, honako alderdi hauei buruz: bere eskubide ekonomikoak, atxikitako ondarearen zati alikuoten kopurua eta zati alikuota bakoitzaren balioa, aldiaren hasieran; aldian zehar egindako ekarpen zuzenak edo egotziak, eta bertan egindako mobilizazioak eta ordaindutako prestazioak; eta bere eskubide ekonomikoen balioa, atxikitako ondarearen zati alikuotak eta zati alikuota bakoitzaren balioa, aldiaren amaieran.
  - xi. Ekarpen finkoa duten gizarte-aurreikuspeneko planetan txertatutako Bazkide arruntei eta Onuradunei bakarrik dagokienez, gutxienez, urtean behin, Erakundeak ziurtapen bat bidaliko du, honako alderdi hauei buruz: aldi bakoitzean egindako ekarpen zuzenak edo egotziak, aldiaren amaierako eskubide ekonomikoen balioa, egongo balira, eta aldian zehar ordaindutako prestazioen ekarpena. Halaber, kudeaketa-txosten laburtu bat bidaliko du, bazkideekin harreman telematikoa duenean izan ezik. Kudeaketa-txosten laburtuak aplikatu beharreko araudiak eskatutako informazio laburtua barne hartuko du.
  - xii. Bazkide arruntei soilik aplikagarria, gutxienez, legezko erretiroa baino bi urte lehenago, erretiroaren prestazioa jasotzeko aukerei buruzko informazioa jasotzea.
  - xiii. Zehazki, Bazkide arrunt pasiboentzat eta Onuradunentzat, zordundutako prestazioei eta horiek ordaintzeko aukerei buruzko informazioa jasotzea. Halaber, Bazkide arrunt pasiboek eta Onuradunek inbertsio-arriskuaren maila esanguratsu bat hartzen dutenean, pentsioa jasotzeko fasean, egoera horri buruz argi eta garbi informatuko zaio.
  - xiv. Batzar nagusiak hartutako erabakiei buruzko informazioa.
- b) Gobernu-organoak osatzen dituzten kargu ezberdinak aukeratzea eta horietarako hautatua izatea, Estatutu hauek eta txertatutako gizarte-aurreikuspeneko planen arautegiek ezarriaren arabera.
  - c) Hautatua bada, Erakundearen Gobernu-organoetan parte hartzea, Estatutuen eta txertatutako gizarte-aurreikuspeneko planen arautegien arabera bermatutako ordezkartzarekin. Erakundeak gizarte-aurreikuspeneko hainbat plan dauzkanean, parte-hartzea horietako bakoitzarekiko proportzionala izango da, Estatutu hauetan ezarritako irizpideei jarraikiz.
  - d) Pertsona batek bere kabuz edo ezkontidearen alde egindako ekarpenen ordeza, titular gisa, Etendako bazkide arrunten kasuan izan ezik, partaidetza-kopuru baliokide bat jasotzea, partaidetza horrek egoki den epean duen balioaren arabera.
  - e) Jasotzeko eskubidea duen prestazioak jasotzea.
  - f) Eskubide ekonomiko guztiak edo zati bat itzultzea edo erreskatatzea lortzea, borondatezko baja baten kasuan, indarrean dagoen araudia betez eta Estatutu hauetan eta Erakundeak gizarte-aurreikuspeneko planen arautegietan ezarritako

baldintzetan, baldin eta arautegi horiek aipatu eskubidea aitortzen badute. Bazkide arruntek soilik daukate ahalmen hori.

- g) Edozein unetan, eskubide guztiak edo zati bat banakako gizarte-aurreikuspeneko beste plan batera mobilizatzea.

Eskubide ekonomikoen mobilizazioa honako preskripzio hauen bidez arautuko da:

- i. Bazkide arrunten edota Onuradunen eskubide ekonomikoak gizarte-aurreikuspeneko beste plan batzuetara mobilizatu ahal izango dira, baldin eta jaso beharreko zenbatekoari dagokion berme edo konpromisorik ez badago.
  - ii. Bazkide arruntak edota Onuraduna idatziz zuzendu beharko dira eskubideak hartu nahi dituzten borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundera, eta bertan kide gisa sartzea, dagoeneko ez bada, eta eskubide ekonomikoen harrera onartzea eskatuko dute. Gainera, mobilizazioa egin nahi duen Erakundea eta gizarte-aurreikuspeneko plana identifikatuko ditu. Halaber, helmugako erakundeari baimen bat erantsiko dio, jatorriko erakundeari zenbateko zehatz baten edo bere eskubide ekonomiko guztien mobilizazioa eskatzeko, bere izenean, baita horiek eragin zituen lehenengo ekarpena egin zen dataren ziurtagiri bat ere.
  - iii. Eskubide ekonomikoen mobilizazioa egiteko gehieneko epea bost egun baliodunekoa izango da, jatorriko erakundean dokumentazio guztia aurkezten denetik zenbatzen hasita.
- h) Erakundeko Gobernu-organoetako hitzarmen eta erabakien aurka komenigarritzat hartzen dituzten baliabideak eta erreklamazioak aurkeztea.
- i) Legezko arauetan eta Estatutu hauetan aitortutako gainerakoak.

2 - Bazkide arrunten eta Onuradunen betebeharrak:

- a) Bazkide arruntentzat bakarrik, ekarpenak Estatutuetan, arautegietan, atxikimendu-aldizkarian edo beste era bateko dokumentu batean hitzartutakoaren arabera egitea.
- b) Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak eskatutako datuak ematea eta eguneratzea, behar bezala funtzionatzeko eta eskubideak gauzatzeko. Zehazki, egiten diren helbide-aldaketak Erakundeari komunikatzea.
- c) Esleitzen zaion kargua onartzea, baldin eta zailtasun arazoituek eragozten badute.
- d) Gobernu-organoek modu baliodunean hartutako erabakiak betetzea.
- e) Egoki den administrazio edo jurisdikzioaren aurrean edozein jarduketa egin aurretik, gobernu-batzarraren edo bazkidearen defendatzailearen aurrean erreklamazioa aurkeztea, beraien aukeran.
- f) Lege-arauen eta Estatutu hauen emaitzazko gainerako betebeharrak betetzea.

### **III. TITULUA**

#### **ONDARE-ARAUBIDEARENA**

##### **10. artikulua: FINANTZA FUNTSAK ETA BERMEAK**

Erakundeak, irizpide ekonomiko, finantzario eta aktuariaren arabera, eta kaudimenaren eta finantza-orekaren printzipioen baitan, honako funtsak eta finantza-bermeak osatu eta izango ditu:

- 1) 50.000 euroko gutxieneko mutuaren funtsa, etengabe bazkide sustatzailearen ekarpenekin edo gizarte-ekitaldien soberakinekin osatua, aktibo egokietan gauzatu beharko dena eta erabat ordainduta egon beharko dena. Bazkide sustatzaileak mutuaren funtsa itzultzea erreklamatu ahal izango du, baldin eta Erakundeak bere kaudimenari eusten badio.
- 2) Erakundearen jardueratik eratorritako betebeharrak guztiak islatzeko beharrezko zorrez osatutako hornidura tekniko integratuak, Estatutu hauetan eta prestazioen arautegietan aurreikusitako gertaerak estaltzeko.
- 3) Modu iraunkorrean, hornidura teknikoak gauzatzen diren aktiboak ez diren beste aktibo batzuetan gauzatuko diren funts osagarriak. Aktibo hauek aurreikus daitezkeen edozein konpromisotik aske egongo dira, eta gastuen eta prestazioen arteko desbideratzeak (aurreikusiak eta errealak) xurgatzeko segurtasun-marjina gisa balioko dute. Segurtasun-marjinaren gutxieneko zenbatekoa edo ehunekoak une bakoitzean aplikatu beharreko araudian ezarriko da.

Erakundearen segurtasun-marjinari dagozkion ekarpenak xedapen askeko erreserbetan zordunduko dira eta, soilik halakorik ezean, Bazkide sustatzaileak egingo ditu.

Bazkide sustatzaileak segurtasun-marjinari egindako ekarpenak itzultzea erreklamatu ahal izango du, betiere, Erakundeak egoki diren gizarte-aurreikuspeneko planen segurtasun-marjinaren gutxieneko zenbateko bat baldin badauka.

##### **11. artikulua: GIZARTE-AURREIKUSPENEN PLAN BAKOITZARI ATXIKITAKO ONDAREA**

###### **11.1 Gizarte-aurreikuspenen planen integrazioa**

Gobernu-batzarra gizarte-aurreikuspenen plan ezberdinen integrazioa erabakitzeko organo eskuduna izango da, Estatutu hauetan ezarritako gehiengoaren arabera; aipatu planak prestazioen arautegi egokien bitartez prestatuko dira. Plan hauetako bakoitzak bere inbertsio-politikak identifikatuko ditu eta plan horietara atxikitako bazkideek

egindako ekarpenak inbertituko dituen aktibo-motak zehaztuko ditu, baita bere ondarearen inbertsioaren kudeaketatik eratorritako etekinak ere.

### **11.2 Gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari atxikitako ondarea**

Gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari atxikitako ondareztat hartuko da, ekarpen guztien bidez zehaztutako kapitalizazio-funtsa, ken prestazioak, mobilizazioak edota erreskateak, kalkuluak erreferentzia egiten dion aldian egindakoak izan ezik, gehi inbertitutako baliabideen bidez sortutako etekinak eta aktiboen gainbalioak edo minusbalioak, kalkuluak adierazten duen eguneko merkatuko prezioan balioztatuak, edo, halakorik ezean, bere benetako balioan, gehieneko zuhurtziaren irizpideekin bat etorritik eta orokorrean onartutako balioztapen-metodoak aplikatuz, eta gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzerako ezarritako administrazio-gastuen zenbatekoa kenduta. Atxikitako ondarea zati alikuotetan banatuta egongo da.

### **11.3 Gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari atxikitako ondarearen inbertsioa**

Erakundeak txertatutako gizarte-aurreikuspeneko plani atxikitako ondarea Erakundearen gobernu-batzarrak une bakoitzean erabakitako inbertsio-profilen arabera inbertituko da, inbertsio horiek egitea hirugarren pertsonari eskuordetzeko kalterik egin gabe, egoki den kontratua sinatzearen bidez. Edonola ere, gizarte-aurreikuspeneko plani atxikitako ondarearen inbertsioa, uneoro, segurtasun, likidezia, errentagarritasun, dibertsifikazio, dispertsio eta diru-kongruentziaren irizpideekin eta bere helburuetara egokitutako epeekin bat etorriko da.

### **11.4 Gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari dagokion ondarearen indibidualizazioa**

Erakundeak gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari atxikitako ondarea uneoro indibidualizatuta egotea zainduko du. Ondore horietarako, gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari atxikitako ondareak bere likidazio-balioa izango du, bazkide bakoitzaren ekarpenek sortutako eskubide ekonomikoei dagokien balioa zehaztu ahal izateko, eta une bakoitzean eskubide ekonomiko horiek izango duten balioztapena banan-banan zehaztuko du.

Une bakoitzean, bere inbertsio-politikaren emaitza gisa, dagoen gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzean sortzen diren irabaziek edo galerek, ez dute eragingo Erakundearen txertatutako gizarte-aurreikuspeneko beste plan bati atxikitako bazkideen eskubide ekonomikoen balioztapenean.

## **12. artikulua: ONDAREAREN KUDEAKETA, GORDAILUTZEA ETA ZAINZTA**

Gobernu-batzarrak gizarte-aurreikuspeneko planen ondarearen kudeaketa, gordailutzea eta zaintza kontratatatu ahal izango ditu, egoki diren kontratuak sinatzearen bidez, non, besteak beste, agintaldia, ordainsaria eta gobernu-batzarrak egokitzen

hartzen dituen gainerako argibideak arautuko diren, hori guztia une bakoitzean aplikatu beharreko araudiari hertsiki helduta.

#### **IV. TITULUA**

### **EKINTZA BABESLEARENA ETA EKARPENEN ETA PRESTAZIOEN ARAUBIDEARENA**

#### **13. artikulua: ESTALITAKO KONTINGENTZIAK**

Estatutu hauek garatzen dituzten arautegietan ezarritako arauketaren arabera, Erakundeak honako kontingentzien gainean garatzen du bere ekintza babeslea:

- a) Erretiroa. Erretiroa posible ez denean, kontingentzia 60 urterekin ematen dela ulertuko da. Erretiro partzialaren araubidea hartzen duten bazkideek, dagokien prestazioa jasotzen egon arren, erretiro osorako ekarpena egin ahal izango dute.
- b) Lanerako ezintasun iraunkorra edo baliaezintasuna, Gizarte Segurantzako edozein araubidetan eta antzekoetan edo organo eskudunaren arabera ezarriarekin bat etorritz.
- c) Heriotza.
- d) Mendekotasuna.
- e) Luzaroko langabezia.
- f) Gaixotasun larria.

#### **14. artikulua: BAZKIDE ARRUNTEN EKARPENAK**

Erakundearen txertatutako gizarte-aurreikuspeneko plan ezberdinei egindako ekarpenak Bazkide arruntek edo horien izenean hirugarren pertsonak egin ahal izango dituzte, une bakoitzean indarrean dagoen funtsezko araudian edo zerga-araudian ezarriari jarraikiz.

Gainera, desgaitasunak dituzten bazkideak izanik, ekarpenak beraiek edo beraien izenean hirugarren pertsonak egin ahal izango dituzte, aplikatu beharreko araudian ezarriaren arabera.

Atxikimendu-aldizkarian, aldizkako ekarpenen plan bat ezarri ahalko da. Bazkide arruntak hala nahi badu, Ekarpenen plana berrikusi, bertan behera utzi edo aldatu ahal izango da, eta atxikimendu-aldizkariaren aldaketa sinatzen denetik aurrera izango du eragina. Egindako ekarpenak indarrean dauden araudian eta prestazioen arautegietan ezarriaren mende egongo dira:

## **15. artikulua: EKARPENEN KITAPENA**

Bazkide arruntek edo horien izenean hirugarren pertsonak egindako ekarpenak gizarte-aurreikuspeneko planaren kontu korrontean sartuko dira, Erakundeak erakunde gordailuzainean irekita izango duena.

Bazkideek, egindako ekarpenen ordeztu, ekarpenak egin diren gizarte-aurreikuspeneko planeko partaidetzen kopuru bat jasoko dute, egoki den likidezia-balioa aplikatzearen ondorioz.

Erakundearen gobernu-batzarrak gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzerako likidezia-balioa kalkulatzeko eta partaidetzak esleitzeko irizpideak zehaztuko ditu, indarrean dagoen araudiak ezarriaren arabera.

## **16. artikulua: PRESTAZIOAK**

Prestazioek, orokorrean, diru-izaera daukate eta kapital gisa, errenta aktuarial gisa, izan aldi baterako ala biziarteko, eta finantza-errenta eta errenta misto gisa abonatu daitezke, aplikatu beharreko araudian, Estatutu hauetan edo prestazioen arautegietan ezarriaren arabera.

Prestazioak pertsonalak eta besterenezinak dira eta sortu ziren helburuarekin lotuta daude, Estatutu edo arautegietako edukiarekin bat etorritik; indarrean dagoen araudiaren edukia onartu beharko da, horiengan kenkariak, atxikipenak, lagapenak, kontentsazioak edo bahiturak egin ahal izateko.

Edonola ere, jazotako prestazioak Bazkide arruntak edo, hala badagokio, Onuradunak Erakundearekin hartutako betebeharrak betetzeari atxikita daude.

Diru-prestazioak Bazkide arrunt pasiboari edo Onuradunari ordaindu behar zaizkio, baldin eta bahimendurik edo traba judizial edo administratiborik ez badago.

Erakundeak abonatuak prestazioek inola ere ez dute pentsio publikoaren izaera izango, beraz, ez daude atxikita pentsioen aldiberekotasunaren arautegira.

Erakundearen eskubidea aitortzearen eta prestazioak ordaintzearen erantzulea da.

Egoki diren prestazioen eskuratzea aitortzeko eskubidea egintza eragilea jazotzen den unean jaiotzen da. Kobrantzarako eskubidearen aitortza Erakundeak egin beharko du, araudiaren arabera ezarritako epearen barruan, baldin eta egoki den eskaera igortzen bada. Aitortza horrek inola ere ez du eraginik izango egintza eragilea jazo aurretik.

Bazkide arrunt pasiboek edota Onuradunek kobrantza era pertsonalean egin dutela ulertuko da, prestazioaren zenbatekoa aurrezki-libreta batean, kontu korrontean edo antzekoan abonatzen zaienean, pertsona bat edo gehiagoren izenean, eta horietako bat aipatu Bazkide arrunt pasiboa edo Onuraduna denean.

## **V. TITULUA**

## **BAZKIDE ARRUNTAREN IZAERA ESKURATZEA, IZATEA ETA GALTZEARI BURUZKO ARAUBIDEA**

### **17. artikulua: ERAKUNDEKO KIDE IZATEKO BALDINTZAK**

Bazkide arruntaren izaera egoki den atxikimendu-aldizkaria formalizatzen duten eta Erakundearen txertatutako gizarte-aurreikuspeneko planetan eskubide ekonomikoak dituzten pertsona fisikoek eskuratu ahal izango dute.

BGAek gizarte-aurreikuspeneko planen ezaugarri guztiei buruzko informazioa eman behar diete bazkide izan daitekeen pertsonari eta, bereziki, lehenetsita dauden planen buruzkoak, hala badagokio, eta zehazki, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 4. artikuluko 1. zenbakiaren a), c), d), e), f), g), h) eta i) letretan aipatzen den informazioa, Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundearen jardura jakin batzuen gauzatzea arautzen duena, edo hura osatzen edo ordezkatzeko duen araudian aipatzen den informazioa.

### **18. artikulua: BAZKIDE ARRUNTAREN IZAERAREN GALERA**

Bazkide arruntek Erakundearen baja eman ahal izango dute honako egoera hauetakoren bat jasotzen bada.

- a) Heriotza.
- b) Borondatezko baja, Estatutu hauek garatzen dituen arautegian edo arautegietan zehazki hala ezartzen bada.
- c) Erakundea banatzea.
- d) Bere eskubide ekonomiko guztiak eskuratu izateagatik.
- e) Bere eskubide ekonomiko guztiak mobilizatu izateagatik.
- f) Atxikimendu-aldizkarietan edo, hala badagokio, Estatutu hauek garatzen dituzten arautegi zehatzetan ezarriak.
- g) Ondore horretarako aplikatu beharreko araudiak ezarritako beste edozein arrazoi dela eta.

## **VI. TITULUA**

### **GOBERNU ORGANIZAZIOA**

## **19. artikulua: GOBERNU-ORGANOAK**

Erakundearen gobernaketa honako organo hauei egokituko zaie:

- a) Batzar nagusia ("**Batzar nagusia**").
- b) Gobernu-batzarra ("**Gobernu-batzarra**").

Batzar nagusia Erakundearen gobernu-organo gorena da. Gobernu-batzarra Erakundearen zuzendaritza eta ordezkarietza dagokion organoa da, eta Batzar nagusiari ez dagozkion eskumen guztiak betetzen ditu.

Batzar nagusia, Erakundearen nahia adierazteko organo gorena den aldetik, hainbat ordezkari osatuta dago, hau da, Bazkide sustatzea, Bazkide arruntak eta Onuradunak, zeintzuek Erakundearen bildutako interes guztiak ordezkatu dituzten, Estatutuaren ezarritako baldintzen arabera.

## **20. artikulua: GOBERNU-ORGANOEN ETA BERTAKO KIDEEN ERANTZUKIZUNA**

Gobernu-organoetako kideek eta administrazio, kudeaketa eta zuzendaritzako funtzioak burutzen dituztenek, aplikatu beharreko araudiak ezarritako betebeharrak urratzen badituzte, administrazio-erantzukizun zigorgarri bat izango dute, araudian ezarriarekin bat etorritik.

## **21. artikulua: GOBERNU-ORGANOETAKO KIDE IZATEKO BALDINTZAK**

Gobernu-organo bateko kide izateko, honako baldintzak bete behar dira:

- a) Adinez nagusia izatea eta eskubide zibilak guztiz erabiltzeko aukera izatea.
- b) Estatutuaren adierazitako erantza hautatua edo izendatua izatea.
- c) Gizarte-aurreikuspenaren inguruko prestakuntza profesionala, jakintza eta esperientzia egokia ziurtatzea, Gobernu-batzarreko kide izateko.

## **I. ATALBURUA**

### **BATZAR NAGUSIARENA**

## **22. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN OSAERA**



Batzar nagusia 20 ordezkari osatuta egongo da, honako xehetasun honen arabera:

- a) Bazkide sustatzailea, zeinak pertsona fisiko bat izendatu beharko duen kargu horren jardueran bera ordezkatzeko.
- b) Bazkide sustatzailea ordezkatuko duten bederatzi ordezkari, aukera askekoak.

Bazkide sustatzailea ordezkatuko duten bederatzi ordezkariak ez dute zertan Bazkide arruntaren edo Onuradunaren izaera izan. Gainera, Bazkide sustatzaileak edozein unetan ordezkatu ahal izango ditu eta Gobernu-batzarreko presidenteari egoera horren berri eman beharko dio, zeinak kargu-uztea edo izendapena jasoko duen.

- c) Bazkide arruntak eta Onuradunak ordezkatuko dituzten 10 ordezkari.

Bazkide arruntak eta Onuradunak (eta ordezkoak, kopuru berean) ordezkatuko dituzten 10 ordezkariak honako prozedura honen arabera izendatuko dira:

- Gobernu-batzarrak, bere kideen artean, hauteskunde-batzordea izendatzen du, presidentea eta bi batzordekidez osatua.
- Hauteskunde-batzordeak BGAEko Bazkide arruntak eta Onuradunen izenen zerrenda bat egiten du, planen arabera banakatuta, plan bakoitzak BGAEaren ondare osoaren gainean duen portzentajea adieraziz, eskura dagoen informazio berrienaren arabera.
- Planetako ordezkarien benetako parte-hartzea bermatzeko, proportzionaltasunaren irizpideei jarraikiz, plan bakoitzari egokituko zaion ordezkari-kopurua gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzaren ondare-bolumenaren arabera kalkulatu da. Horretarako, BGAEaren ondare osoa zati 20 eginda ateratzen den emaitzaren berdina edo gehiagoko ondarea daukan planak proportzio horretatik kendutako ordezkariak izateko eskubidea izango du, zatiki osoak gaudituz, Bazkide arruntei eta Onuradunei dagozkien ordezkari-kopurua lortu arte. Ordezkoen kopuru berdina egokituko zaie.

Adibide gisa, gizarte-aurreikuspeneko bost plan baldin badaude eta bakoitzaren ondareak Erakundearen ondare osoaren % 20 ordezkatzeko badu, plan bakoitzak hamarretik bi ordezkari izateko eskubidea izango du (eta bi ordezko).

- Plan bakoitzari dagokion ordezkari-kopurua eta kopuru bereko ordezkoak kalkulatu ondoren, horiek izendatzeari ekingo zaio, notario-zozketaren bidez. Horretarako, aurreko irizpidearen arabera ordezkari-egokitasunaren duten planen kopurua beste notario-zozketa egongo dira, eta zozketa bakoitzean, une bakoitzeko planean barne hartzen diren Bazkide arruntak eta Onuradunen kopuru osoa hartuko da oinarritzat, hauteskunde-batzordeak egindako erroldarekin bat etorriz.

Bazkide arruntak eta Onuradunak bakoitza plan bateko ordezkari edo ordezko gisa hautatu ahal izango da bakarrik. Bazkide arrunt bat edo Onuradun bat plan baten

zozketan hautatua bada eta geroagoko zozketa batean berriz aukeratzen badute, hautagaitza hori alde batera utziko da eta beste hautagai bat aukeratuko da.

- Notario-zozketan, plan bakoitzari dagokion ordezkari eta ordezkoen kopuruaren hautagai-kopuru berdina hautatuko da, zozketa bidez. Hauteskunde-batzordeak hautatuak izan diren hautagaiei izendapenaren berri emango die, zozketaren ordena zorrotzean, onarpena lortu arte, lehenengo ordezkariena eta gero, ordezkoena, plan bakoitzari dagokion zenbakian.

Plan bateko ordezkarien eta ordezkoen kopurua notario-zozketan hautatutako hautagaiekin bete ezin bada, izendapena onartzen ez dutelako, Bazkide sustatzaileari dagokio, egoki diren kontsultak egin ondoren, plan horri egokitzen zaizkion ordezkariak edota ordezkoak aukeratzea. Horretarako, Bazkide sustatzaileak hainbat irizpide hartuko ditu kontutan, besteak beste: bazkidearen antzintasuna, aurreikuspenaren sektorean duen esperientzia eta jakintza, gaitasun profesionalak, konpromisoa edo erantzukizuna.

- Agintaldian zehar ordezkari posturen bat hutsik geratzen bada eta ordezkoekin bete ezin bada, ez da beharrezkoa izango plaza horiek betetzea, baldin eta ordezkarien kopuru guztia 11 baino txikiagoa ez bada, kasu horretan, Batzar nagusia desegin beharko da, ordezkarien eta ordezkoen izendapen-prozesu berri bat abiarazteko.

Ordezkariek izendatzen direnean, bazkideei dagozkien funtzio guztiak hartuko dituzte, Erakundearen Batzar nagusiaren nahia betetzearen arduradunak baitira. Gainera, funtzioak behar adinako arretarekin beteko dituzte, eta uneoro, Erakundearen eta Bazkide arrunt eta Onuradunen arteko informazio-zubiaren funtzioa betetzen saiatuko dira.

Batzar nagusiko kideek lau urteko kargua izango dute, baldin eta Gobernu-organoetako kide izateko baldintzak betetzeari uzten ez badiote edo ordezkutzen ez badituzte; berrautatuak izan daitezke, era mugagabea.

### **23. artikulua: BATZAR NAGUSIKO KIDEAREN IZAERA-GALERAREN KASUAK**

Ordezkariek euren karguaren baja eman ahal izango dute, honako kasu hauetan:

- a) Lau urte igaro direlako mandatua amaitzea, iraupen bereko aldietarako berrautatua izateko aukerari kalterik eragin gabe.
- b) Heriotzaren ondorioz.
- c) Ezintasun fisikoaren edo beste era bateko ezintasunaren ondorioz, Gobernu-batzarrari behar bezala ziurtatua.
- d) Erakundeko Bazkide arrunt edo Onuradun gisa baja emateagatik, Bazkide sustatzailea ordezkutzen duten ordezkarietzat izan ezik, ez baitaukat zertan Erakundeko bazkide-izaera bete.
- e) Lege-baldintzak edo estatutuetakoak galtzeagatik, Batzar nagusiko kide izateko.

f) Bazkide sustatzailea ordezkaten duten ordezkariak dagokienez, Bazkide sustatzaileak ordezkari bat ordeztearen ondorioz.

## **24. artikulua: BATZAR NAGUSI MOTAK**

Batzar nagusia ohikoa edo ezohikoa izan daiteke. Ohiko bazar orokorra erakundearen egoitza dagoen udalerrian deitu eta egingo da, ekitaldi bakoitzaren itxiera-dataren ondorengo lehenengo lau urteen baitan, honakoak aztertzeko eta, hala badagokio, onartzeko: Gobernu-batzarraren kudeaketa, kudeaketa-txostena, urteko kontuak, aribidean dagoen urterako aurrekontua eta gai-zerrendan barne hartutako gainerako puntuak. Beste edozein Batzar nagusi ezohikoa izango da.

## **25. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIAK, ERAKETA ETA HITZARMENAK**

### **25.1 Deialdia**

Batzar nagusia, ohikoa zein ezohikoa, Gobernu-organoak deituko du, ordezkariak idatzizko komunikazio pertsonal bat bidaliz, gutxienez, batzarraren eguna baino 10 egun balioduneko eta, gehienez, 30 egun naturaleko aurrerapenarekin.

Ezohiko batzar nagusia deitu ahal izango da, Gobernu-batzarrak bere ekimenez erabakitzen duenean, Bazkide sustatzaileak eskatzen duenean edo, gutxienez, ordezkarien ehuneko hogeia (%20) eskatzen duenean.

Batzar nagusia, ohikoa zein ezohikoa, Erakundearen egoitza kokatzen den udalerrian egin beharko da. Batzar nagusi bat egin aurretik eta batzarraren deialdia egiten den egunetik aurrera, Erakundeak batzarrean eztabaidatu eta, hala badagokio, onartuko den dokumentazioa helarazi beharko die egoitzako bazkideei.

Boto guztien, gutxienez, % 10 ordezkaten duten Batzar nagusiko kideek gai-zerrendan punturen bat barne hartzea eskatzeko eskubidea izango dute.

Batzar nagusiaren deialdian bileraren eguna, ordua eta tokia adieraziko dira, lehenengo eta bigarren deialdian, eta gai-zerrenda osatzen duten gaiak adieraziko dira, argi eta garbi eta xehetasun nahikoarekin.

Batzar nagusiaren bilerak telefono bidezko konferentzia anitzaren, bideokonferentziaren edo antzeko beste sistema baten bidez egin ahal izango dira, betiere, bertaratuko diren kideek horretarako beharreko baliabideak badituzte, organoko idazkariak bere nortasuna ezagutzen badu eta aktan hala jasotzen badu.

Gobernu-batzarrak hala zehazten duenean, batzar nagusi bakoitzeko bilerak honelakoak izan ahalko dira: (i) mistoa, hau da, aurrez aurrekoa, baina kide bati edo gehiagori baliabide telematikoen bidez bertaratzea ahalbidetuz; edo, hala badagokio, (ii) guztiz telematikoa (kasu hau aplikatu beharreko araudiak baimentzen badu soilik emango da edo, ohiz kanpoko egoeren ondorioz, kideak aurrez aurre bertaratzea ezinezkoa denean).

Ondore horretarako, batzar nagusiaren deialdiak:

- (i) Modu mistoan egiteko bilera bat izanik, aurrez aurreko bilera non izango den adierazteaz gain, telefono bidezko konferentzia, bideokonferentzia edo sistema baliokide baten bidez bertaratzeko aukera dagoela aipatu beharko du, eta helburu horretarako beharrezko baliabide teknikoak identifikatu beharko ditu, zeintzuek bertaratzen diren kide guztien arteko aldibereko komunikazio zuzena ahalbidetu beharko duten.

Kasu horretan, batzar nagusiaren bilera aurrez aurreko saioa izan den lekuan egin dela eta bakarra izan dela jasoko da.

- (ii) Soilik modu telematikoan egindako bilerak izanik, erabili beharreko telefono bidezko konferentzia, bideokonferentzia edo sistema baliokidea adierazi beharko ditu eta, halaber, helburu horretarako baliabide teknikoak identifikatu beharko ditu, bertaratutako kide guztien arteko aldibereko komunikazio zuzena ahalbidetu beharko dutenak.

Kasu horretan, batzar nagusiaren bilera Erakundearen helbidean egin dela eta bakarra izan dela jasoko da.

## **25.2 Eraketa**

Batzar nagusia lehenengo deialdian modu baliodunean eratuta geratuko da, kideen erdia gehi bat bertaratzen direnean, euren kabuz edo ordezkarien bitartez. Kopuru hori lortzen ez bada, modu baliodunean eratuta geratuko da, euren kabuz edo ordezkarien bitartez bertaratuen kopurua edozein izanik ere, ordu-erdi geroago egingo den bigarren deialdian, lehenengoaren leku berean.

Batzar nagusiko kideek, modu berezian, beste ordezkari batzuen bidez ordezkatuak izateko aukera izango dute, batzar bakoitzerako eta idatziz.

Batzar nagusietara, zuzendariak, gerenteak, teknikariak eta Erakundearen funtzionamendu onaren erantzukizuna duten gainerako pertsonak bertaratu ahal izango dira.

Halaber, Gobernu-organoko kideak Batzar nagusietara bertaratu beharko dira, eta beraien ordezkaritza Gobernu-batzarreko beste kide bati eskuordetu ahal izango diote.

Batzar nagusiko burua Gobernu-organoaren presidentea da, edo bestela, Estatutuei jarraikiz funtzio horiek burutzen dituena, edo aurrekorik ez badago, batzarrak berak aukeratzen duen ordezkaria. Presidenteari dagokio deliberazioak zuzentzea, batzarrean zehar ordenari eustea eta lege-formalitateak betetzen direla zaintzea. Gobernu-batzarraren idazkariak edo horren ordezkariak lagunduko dio, edo aurrekorik ez badago, batzarrak izendatutako pertsonak.

## **25.3 Erabakiak hartzeko araubidea**

Erabakiak hartzeko, igorritako botoen erdia gehi bat aldeko botoak izan behar dira.

Estatutuak aldatzeko, beste Erakunde batzuekin bat egiteko, zatitzeko edo federatzeko eta Erakundea desegiteko, igorritako botoen bi heren (2/3) aldeko botoak izan behar dira.

Arau orokor gisa, ordezkari bakoitzak boto bat emateko eskubidea izango du.

Salbuespen gisa, bat egiteko, zatitzeko, desegiteko eta Estatutuak aldatzeko erabakiak hartzeko eta Bazkide sustatzaileari dagokion Gobernu-batzarreko kideak hautatzeko, Bazkide sustatzailearen botoa haztatuko da eta ordezkariak igorri ditzaketen boto guztien ehuneko berrogei (% 40) ordezkaturako du.

Hortaz, adibide gisa, Batzar nagusira ordezkari guztiak bertaratzen badira (aurrez aurre ala ordezkaturatu), hau da, 20, igorri daitezkeen botoen guztizkoa 32 izango da, horietatik, Bazkide arruntak eta Onuradunak eta Bazkide sustatzailea ordezkaturatu duten ordezkariak 19 boto emateko eskubidea izango dute (ordezkari bakoitzak bat) eta Bazkide sustatzaileak 13 boto emateko eskubidea izango du.

Ondore horietarako, biribiltzeak hurrengo unitate osora egingo dira, zatikia 50 edo gehiago denean, eta aurreko unitate osora, zatikia 50 baino gutxiago denean.

Hartutako erabakiak derrigorrezkoak dira bazkide guztientzat, disidenteak eta bertaratu ez direnak barne.

Batzar nagusiaren akten liburu bat egongo da, zeinaren edukia indarrean dauden xedapenetan ezarritako baldintzekin bat etorriko den.

Batzarraren erabakiak aktan jasota geratuko dira, idazkariak idatzi du eta akten liburuan transkribaturatu dituenak. Akta batzarrak berak saioa egin eta jarraian onartu ahal izango du edo, bestela, presidentek eta batzarrean izendaturako bi kidek 30 eguneko epean, idazkariarekin batera sinaturatu dutenak.

## **26. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN HITZARMENEN AURKARATZEA**

Bazkideek batzar nagusiaren erabakiak aurkaratzeko eskubidea izango dute, baldin eta legearen edo Estatutuen aurkakoak badira, edo Erakundearen edo bere Bazkide arrunten eta Onuradunen interesak hondatzen badituzte (bazkide baten edo batzuen edo hirugarrenen onuran).

Ezingo da erabaki bat aurkaratu eraginik gabe geratu bada edo beste batek ordezkaturatu badu.

Nolanahi ere, aurkaratzeko epea 30 egun balioudunekoa izango da, interesatuari erabakia jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

## **27. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN ESKUMENAK**

Batzar nagusiaren eskumenak:

- a) Gobernu-batzarraren kudeaketa, aurreko ekitaldiko urteko kontu ikuskaturak, Erakundearen kudeaketa-txostena eta aribidean dagoen urterako aurrekontua.

- b) Gobernu-batzarra osatu behar duten kideak izendatzea, eta horiek ordezkatzera, Estatutu hauetan ezarriarekin bat etorriz.
- c) Gobernu-batzarrak aurkeztutako proposamenak ikertzea eta aztertzea, Erakundearentzako eta bazkideentzako onurak izango dituztenak.
- d) Estatutu hauek ikertzea, aztertzea eta, hala badagokio, erreformatzea edo aldatzea.
- e) Erakundearen Bazkideek eta Onuradunek aurkeztutako errekurtsoen berri izatea eta ebaztea.
- f) Erakunde hau desagitea, zatitzea, bat egitea edo beste BGAE batekin edo batzuekin federatzearen erabakia hartzea; Bazkide sustatzailearen aurretiko derrigorrezko onarpena behar da.
- g) Bazkidearen defendatzaile bat izendatzea, Bazkide arrunten eta Onuradunen eskubideen alde egin beharko duena.
- h) Kontu-ikuskaria edo kanpoko ikuskaritza-enpresa hautatzea, izendatzea eta atzera botatzea.
- i) Aplikatu beharreko araudiaren bidez eskumena esleitzen zaien beste guztiak, edo ondore horretarako ahaldundutako organoen ardura dutenak eta Erakundearentzako interesgarriak direnak, baldin eta gai-zerrendan azaltzen badira.

## **II. ATALBURUA**

### **GOBERNU-BATZARRARENA**

#### **28. artikulua: GOBERNU-BATZARRAREN OSAERA ETA BERTAKO KIDEEN IZENDAPENA**

Gobernu-batzarra Batzar nagusiak ordezkarien artean izendatutako 10 kidez osatuta egongo da, honako xehetasun honen arabera izendatuak:

- Bost kide Bazkide arrunten eta Onuradunen kolektiboko ordezkariak izango dira, batzarreko ordezkarien proposamenez.
- Gainerako bostak Bazkide sustatzailearen ordezkariak izango dira, bere proposamenez.

Horiek guztiek une bakoitzean indarrean dagoen araudiak egoki den kargua burutzeko beharrezkoak diren trebakuntza eta prestakuntza-baldintzak bete beharko dituzte.

Gobernu-batzarrak emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu bat izan beharko du, Erakundearen duten ordezkariak-portzentajea kontuan hartuta.

## **29. artikulua: KARGUEN IRAUPENA ETA PLAZA HUTSEN BETETZEA**

Gobernu-batzarreko kideak lau urteko kargurako izendatuko dira, eta era mugagabeen berrautatuak izan daitezke.

Gobernu-batzarreko kideek euren karguari utziko die honako egoera hauetan:

- a) Lau urte igaro direlako mandatua amaitzea, iraupen bereko aldietarako berrautatua izateko aukerari kalterik eragin gabe.
- b) Heriotzaren ondorioz.
- c) Ezintasun fisikoaren edo beste era bateko ezintasunaren ondorioz, Gobernu-batzarrari behar bezala ziurtatua.
- d) Dimisioaren ondorioz, Gobernu-batzarrari komunikatuta.
- e) Batzar nagusiaren erabakiz.

Libre geratzen diren postuak Gobernu-batzarrak berak beteko ditu aldi baterako, aurreko izendatuaren agintaldia amaitzeko geratzen den denboran zehar, eta Batzar nagusiaren lehenengo ohiko saioan berretsiko dira.

Kargua utzitako ordezkariak lanbide-sekretua gordetzera behartuta daude, ordezkari izateagatik ezagutu ahal izan dituzten gai guztiei dagokienez.

## **30. artikulua: GOBERNU-BATZARREKO KARGUAK**

Gobernu-batzarreko kideen artean, Presidente bat, Presidenteorde bat, Idazkari bat eta Idazkariorde bat egongo da. Presidentearen kargua Bazkide sustatzailearen ordezkari bati egokituko zaio.

Presidenteordea, Idazkaria eta Idazkariordea Gobernu-batzarrak izendatuko ditu bere kideen artean.

Aurrekoa hala izanik, Idazkariaren eta Idazkariordearen kargua Gobernu-batzarreko kidea edo Erakundeko Bazkidea ez den pertsona batek burutu ahal izango du, eta kasu horietan, hitzarekin baina botorik gabe jardungo du.

Erakundeko Gobernu-organoetako kargu bat ere ez da diruz ordainduko. Aurrekoa hala izanik ere, Gobernu-batzarreko kideei ordainsariak edo gastuen konpentsazioak esleitu ahal izango zaizkie, funtzio betearazleak edo administratiboak egiten dituztenean. Eraginkorrak izateko, Batzar nagusiaren onarpena beharko da.

## **31. artikulua: GOBERNU-BATZARRAREN DEIALDIAK, ERAKETA ETA HITZARMENAK**

### **31.1 Deialdia**

Gobernu-batzarra hiru hilez behin bilduko da, izaera arruntarekin edo Presidenteak berariaz deitzen duenean. Presidenteak komunikazio idatziz bidaliko die deialdia Gobernu-batzarreko kideei, gutxienez, 10 eguneko aurrerapenarekin, bileraren gai-zerrendarekin batera.

Halaber, deialdian, gai-zerrendan barne hartzen diren gaiak eztabaidatuko diren bileraren eguna, ordua eta lekua adieraziko dira.

Gobernu-batzarreko kideen heren batek puntuak barne hartu ahal izango ditu bileretako gai-zerrendan, Presidenteari Gobernu-batzarra egin aurreko bost egun naturaleko epean idatziz komunikatuta.

Gobernu-batzarraren bilerak telefono bidezko konferentzia anitzaren, bideokonferentziaren edo antzeko beste sistema baten bidez egin ahal izango dira, betiere, bertaratuko diren kideek horretarako beharreko baliabideak badituzte, organoko idazkariak bere nortasuna ezagutzen badu eta aktan hala jasotzen badu.

Aipatu bilerak honelakoak izan ahalko dira: (i) mistoak, hau da, aurrez aurrekoak, baina kide bati edo gehiagori baliabide telematikoen bidez bertaratzea ahalbidetuz; edo, hala badagokio, (ii) guztiz telematikoa.

Ondore horretarako, Presidenteak zuzendutako deialdia:

- (i) Modu mistoan egiteko bilera bat izanik, aurrez aurreko saioa non izango den adierazteaz gain, telefono bidezko konferentzia, bideokonferentzia edo sistema baliokide baten bidez bertaratzeko aukera dagoela aipatu beharko du, eta helburu horretarako beharrezko baliabide teknikoak identifikatu beharko ditu, zeintzuek bertaratzen diren kide guztien arteko aldibereko komunikazio zuzena ahalbidetu beharko duten.

Kasu horretan, gobernu-organoaren saioa aurrez aurreko saioa izan den lekuan egin dela eta bakarria izan dela jasoko da.

- (ii) Soilik modu telematikoan egindako bilerak izanik, erabili beharreko telefono bidezko konferentzia, bideokonferentzia edo sistema baliokidea adierazi beharko ditu eta, halaber, helburu horretarako baliabide teknikoak identifikatu beharko ditu, bertaratutako kide guztien arteko aldibereko komunikazio zuzena ahalbidetu beharko dutenak.

Kasu horretan, gobernu-batzarraren saioa Erakundearen helbidean egin dela eta bakarria izan dela jasoko da.

Era berean, gobernu-batzarrak idatzizko prozeduraren bidez eta saiorik gabe hartu ahal izango ditu erabakiak, baldin eta prozedura horren aurka inor agertzen ez bada.

## **31.2 Eraketa**



Gobernu-batzarra lehenengo deialdian modu baliodunean eratuta geratuko da, kideen erdia bertaratzen denean. Kopuru hori lortzen ez bada, modu baliodunean eratuta geratuko da, bertaratuen kopurua edozein izanik ere, ordu-erdi geroago egingo den bigarren deialdian, lehenengoaren leku berean.

### **31.3 Erabakiak hartzeko araubidea**

Erabakiak igorritako botoen gehiengo soilez hartuko dira. Bozketa baten emaitza berdinduta dagoenean, Presidenteak erabakiko du bere kalitateko botoarekin.

Gobernu-batzarreko kideak Gobernu-batzarreko beste kide batzuek ordezkatuak izan daitezke.

Gobernu-batzarreko akten liburu bat egongo da eta, bertan, egindako bilerak eta hartutako deliberazioak eta erabakiak zehaztuko dira.

## **32. artikulua: GOBERNU-BATZARRAREN ESKUMENAK**

Gobernu-batzarraren eskumenak:

- 1- Erakundearen gobernaketa, administrazioa eta ordezkaritza.
- 2- Estatutu hauetan, gizarte-aurreikuspeneko planen arautegietan eta indarrean dagoen marko arautzailearen arabera aplikatu beharreko izaera orokorreko arautegietan barne hartzen diren arauak betetzea eta betearaztea (besteak beste, zerga-araudia eta kapital-zuriketaren prebentzioarena).
- 3- Planen integrazioa onartzea eta bertako arautegiak baliozkotzea eta berrestea, Estatutu hauek garatzen dituztenak eta dagoeneko badaudenak aldatu eta desegiten dituztenak.
- 4- Urteko kontu ikuskatuak, aribidean dagoen urteko aurrekontua eta kudeaketa-txostena egitea eta Batzar nagusiaren onarpenaren mende uztea.
- 5- Batzar nagusiarik Estatutu hauek aldatzea, beste Erakunde batekin edo batzuekin bat egitea, banatzea edo federatzea eta Erakundea desegitea proposatzea.
- 6- Erakundeentzat eta bere bazkide eta Onuradunentzat onurak ekarriko dituen neurriak hartzeko iradokizun egokiak helaraztea eta proposatzea.
- 7- Hirugarren pertsonekin kontratuak sinatzea, ondarearen kudeaketa, gordailutzea, aholkularitza eta administrazioa egiteko, edo kanpora ateratzeko beste edozein kontratu sinatzea, Erakundearen funtzionamendu on baterako eta ekonomia-finantza finkapenerako beharrezkoak direnak, jarduera horiek gainbegiratzuz eta kontrolatuz.
- 8- Prestazioak aitortzeari ekitea, aitortuta daudenak eta prestakuntza-aldian daudenak zainduz eta kontrolatuz.
- 9- Uneoro, lege- eta zerga-aldaketen berri izatea.

- 10- Honako alderdi hauek kontrolatzea eta zaintzea: administrazio-jarduketa oro, Erakundearen kaudimena eta finantza-egoera, funtsen eta baloreen erabilera, eta ondasunen, aktiboen, akzioen eta eskubideen kontratazioa, erosketa edo salmenta.
- 11- Erakundearen inbertsioen politika orokorra onartzea eta zehaztea, inbertsio-printzipioen adierazpen idatzia aldian-aldian prestatuz eta berrikusiz, eta Erakundearen baliabideak modu zuhur, profesional eta arduratsuan inbertituz.
- 12- Inbertsio-printzipioen adierazpenaren aldaketa hitzartzea, egiten den lehenengo Batzar nagusian horren berri emanez.
- 13- Estatutu hauek eta gizarte-aurreikuspeneko planen arautegiek ematen dizkioten atribuzio guztiak kontuan hartuz jokatzeko, egokitzat hartzen dituen erabakiak hartuz, eta horien edukia eta egoki diren xedapen legalak errespetatuz.
- 14- Estatutu hauetan eta gizarte-aurreikuspeneko planen arautegietan ezarriaren arabera, Egoki diren zigorak egotea eta beharrezkoak diren datuak eta txostenak eskatzea.
- 15- Bazkideek aurkezten dituzten errekursoak eta erreklamazioak ebatzea, Estatutu hauetan ezarritako prozedurari jarraikiz.
- 16- Funtzioak arduraz burutzea eta Bazkide sustatzailearen eta Bazkide arrunten aurrean erantzutea, maltzurkeriak, ahalmen-abusuak edo zabarkeriak eragindako kalteei dagokienez.
- 17- Batzar Nagusiaren bilerak deitzea eta erabakiak gauzatzea.
- 18- Estatutu hauek eta gizarte-aurreikuspeneko planetako arautegiak aplikatzeak sortzen dituen zalantzak argitzea, eta Erakundearen hurrengo Batzar nagusian horren berri ematea.
- 19- Erakundea modu eraginkor batean zuzentzea, behar bezala administratuz.
- 20- Bertako kideen prestakuntza egokiaz arduratzea.
- 21- Bazkide arrunten eta Onuradunen interesean jokatzeko, modu zuhur, kontziente eta arduratsuan.
- 22- Indarrean dagoen araudiaren arabera, Erakundearen kudeaketa on baterako beharrezkoak diren politika idatziak hartzea, berrikustea eta behar bezala betetzen direla zaintzea.
- 23- Berriaz Batzar nagusiarenak ez diren gainerako eskumenak.

Arestiko ahalmenak azalpenekoak dira soilik, ez mugatzaileak.

Gobernu-batzarraren funtzioak eskuordetu ahal izango dira, batzarraren gainbegiraketa eta kontrolpean, aplikatu beharreko araudiaren edo Estatutu hauen arabera eskuordetu ezinak direnak izan ezik.

Gobernu-batzarreko kideak egoki diren administrazio-organoen eta Batzar nagusiaren (honi kontu eman behar dio) ekonomia, administrazio eta gizarte-kudeaketaren erantzuleak dira.

### **33. artikulua: GOBERNU-BATZARRAREN HITZARMENEN AURKARATZEA**

Gobernu-batzarraren erabakien aurka, Gobernu-organoetako kideek eta Bazkideek Batzar nagusiaren aurkako errekurtsua aurkeztu ahal izango dute.

Nolanahi ere, errekurtsua aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, interesatuari erabakia jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

### **34. artikulua: PRESIDENTEAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK**

Gobernu-batzarraren Presidente Erakundeko ordezkari gorena izango da. Honako ahalmen eta funtzio hauek izango ditu:

- 1- Gobernu-batzarraren izenean, Erakundea egintza eta kontratu guztietan ordezkatzea.
- 2- Batzar nagusiaren bileretako buru izatea eta Gobernu-batzarra deitzea eta zuzentzea, eztabaidak zuzenduz eta, berdinketa kasuetan, bozketak ebatziz.
- 3- Gobernu-organoetako bileren gai-zerrenda zehaztea.
- 4- Erakundearen zerbitzu eta jarduera guztiak ikuskatzea eta eragiten dieten xedapen legalak betetzen direla zaintzea.
- 5- Gobernu-organoek hartutako erabakiak gauzatzea.
- 6- Ahalordeak ematea eta Erakundearen izenean dokumentu publiko nahiz pribatuak sinatzea, Batzar nagusiaren eta Gobernu-organoaren erabakiak betez.
- 7- Sinaduraren bidez, Erakundetik igortzen diren komunikazioak eta idatzi ofizialak baimentzea.
- 8- Urgentziaz ager daitezkeen kasu zehatzak ebatzea, Gobernu-batzarra elkartzeko denbora baliodun nahikorik ez badago, egiten den lehenengo bileran batzarrari egitate horien berri emanez.
- 9- Erakundeko administrazio-zerbitzuetako buru izatea eta horren eraginkortasunari erantzutea.
- 10- Zigorrek ezartzeko prozedura burutzea, Estatutu hauetan ebatziari jarraikiz.
- 11- Berariaz Gobernu-organoenak ez diren gainerako zuzendaritza eta kudeaketa-funtziok.

### **35. artikulua: RESIDENTEORDEAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK**

Presidenteordearen ahalmenak eta funtzioak Presidente ordezkatzea eragiten duten guztiak izango dira, absentzia, gaixotasuna edo heriotza dela eta, edota Gobernu-batzarrak agindutako jarduera guztiak.

### **36. artikulua: IDAZKARIAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK**

Gobernu-organoaren Idazkariaren ahalmenak eta funtzioak:

- 1- Batzar nagusiaren eta Gobernu-batzarraren aktak idaztea eta horiei dagozkien liburuak eramatea.
- 2- Presidentearen oniritziarekin, Erakundeak igortzen dituen ziurtagiriak ematea.
- 3- Bere kargua dela eta, akta-liburuen artxiboaren gordailuzaina izatea.
- 4- Presidenteari erreserbatu gabeko gutuneria eta dokumentuak sinatzea, egoki den baimena lortu ondoren.

### **36bis artikulua: IDAZKARIORDEAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK**

Idazkariordearen ahalmenak eta funtzioak Idazkaria ordezkatzea eragiten duten guztiak izango dira, absentzia, gaixotasuna edo heriotza dela eta, edota Gobernu-batzarrak agindutako jarduera guztiak, betebeharrak horretan lagunduko dutenak.

### **37. artikulua: BATZORDEKIDEEN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK**

Batzordekideen ahalmenak eta funtzioak agindutako zereginak betetzean eta kide diren Gobernu-organoek egiten dituzten bileretara joatean oinarritzen dira, deliberazioetan eta hartzen diren erabakietan parte hartuz, eta aipatu Organoetako kideei behar bezalako kooperazioa eskainiz, aurreko artikuluetan adierazitako karguak dituztenak.

### **38. artikulua: ZUZENDARITZAREN ESKUMENAK ETA FUNTZIOAK**

Gobernu-batzarraren kontrol iraunkor eta zuzenaren pean, honek Zuzendari profesional baten, Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko beste Erakunde baten edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako kudeaketa eta administrazioarekin lotutako jarduerak burutzen dituzten beste erakunde batzuen (behar bezala baimenduak eta gainbegiratuak) zerbitzuak kontratatu ahal izango ditu, zeintzuek, gizarte-aurreikuspenaren inguruan esperientzia eta prestakuntza nahikoa izan beharko duten, eta zeintzuen ahalmenak eta funtzioak, berariaz, honako hauetatik eskuordetu hala izango diren:

- 1- Erakundearen kontabilitate eta administrazioeko eragiketa guztiak antolatzea eta gauzatzea, araudiko liburuen eta erregistroen bitartez.
- 2- Gobernu-organoei aurkeztu beharreko ekonomia eta finantza informazioa prestatzea.

- 3- Erakundearen legezko eta zergazko konpromisoak betetzeko beharrezko informazioa prestatzea.
- 4- Erakundearen Gobernu-organoek agindutako finantza-eragiketak gauzatzea.
- 5- Gobernu-batzarrak hirugarrenei agindutako lanak ezagutzea eta aztertzea, horiek behar bezala gauzatzeko elkarrekin lan eginez, eta Erregistro-liburu batean sinatutako kudeaketa, gordailutze eta zaintza-kontratuen kontrola egitea, eguneratuta eta Agintari eskudunaren esanera dagoena.
- 6- Kontu-ikuskariekin batera lan egitea, euren funtzioak burutzean.
- 7- Likidatzaileekin batera lan egitea, euren funtzioak burutzean.
- 8- Erakundearen zerbitzu guztien erantzukizuna gain hartzea.

### **39. artikulua: ADMINISTRAZIO-GASTUAK**

Administrazio-gastuak ehunekoetan esleitu beharko dira, Erakundearen txertatutako gizarte-aurreikuspeneko planetako egoki diren arautegietan, eta ezingo da indarrean dagoen araudiak ezarritako urteko gehieneko ehunekoa gainditu.

## **VII. TITULUA**

### **GATAZKEN EBAZPENA ETA ERREKLAMAZIOAK**

#### **40. artikulua: GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK**

Bazkide arruntak, Onuradunak edo horien eskubidedunek euren interesekin eta legeak aitortutako eskubideekin lotutako kexak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, idatziz, Gobernu-batzarrean edo bazkidearen defendatzailearen aurrean, nahierara.

Gobernu-batzarrak, hala badagokio, egoki den erabakia hartzeko ardura Erakundeko zuzendaritzari eskuordetu ahal izango dio edo, bestela, Erakundeari zerbitzu profesionalak eskaintzen dizkien pertsona fisikoei edo juridikoei.

Bazkidearen defendatzaileak 15 eguneko gehieneko epea izango du erreklamazioak ebazteko, bere prozedura-arautegiaren eta erreklamazioaren aldeko erabakien arabera, Erakundea lotetsiko dute.

Bazkidearen defendatzailearen edo Gobernu-batzarraren erabakia, ez da oztopo izango babes judizial osoa lortzeko edo administrazioko kontrol eta gainbegiraketa funtzioak gauzatzeko.

Aurrez adierazia hala izan arren, kexak edo erreklamazioak Batzar nagusiaren edo Gobernu-batzarraren erabaki bat oinarri badu, Estatutu hauetako 26 eta 33. artikuluetan ezarria aplikatuko da, hurrenez hurren.

## **VIII. TITULUA**

### **DIZIPLINA-ARAUBIDEA**

#### **41. artikulua: HUTSEGITEAK**

Hutsegite gisa hartuko dira administrazio, kudeaketa eta zuzendaritza-funtzioak burutzen dituzten pertsonen egotz dakizkiekeen ekintzak edo hutsegiteak, baita gobernu-organoetako kideei, likidatzaileei eta gizarte-aurreikuspeneko planen eta Erakundeari kalte egiten dieten Bazkide eta Onuradunei ere. Ondore horietarako, honako egitate hauek zigorgarriak izango dira:

- a) Estatutuetako manuak, Erakundearen funtzionamendu-arauak, txertatutako gizarte-aurreikuspeneko planetako arautegiak edo Gobernu-organoetatik hartutako erabakiak (bere helburuak betetzearekin lotuak) ez betetzea.
- b) Erakundearen interesen kale egitea edo helmuga horretara eramaten duten bideak erraztea.
- c) Erakundearen aurrean egiten diren adierazpenak faltsutzea, edo datu okerrak ematea, prestazioak eta irabaziak emateari dagokienez edo beste edozein komunikaziori dagokionez.
- d) Erakundeari Bazkide arruntan edo Onuradunen egoera pertsonalean izandako edozein aldaketaren berri ez ematea.
- e) Erakundearen jardura oztopatzea.
- f) Horretarako arrazoirik izan gabe, Gobernu-organoen bileretara ez joatea.

#### **42. artikulua: ZIGORRAK**

Erakundeak honako zigor hauek jarri ahal izango ditu:

- a) Ohartarazpen pribatua zigortuari, ahoz edo idatziz.
- b) Ohartarazpen publikoa, zigorrak eredugarritasuna izateko egoki den publizitate-graduarekin.

c) Erakundeko Gobernu-organoetan parte hartzeko aldi baterako edo betiko gaitasungabetzea.

#### **43. artikulua: ZIGORRAK EZARTZEKO PROZEDURA**

Erakundeko Gobernu-batzarra izango da organo zigortzailea. Interesatuaren entzutearekin, hutsegiteen espedienteko dokumentu guztien bi ale beteko dira, eta horietako bat Erakundeko artxiboan geratuko da. Gainera, zigor-prozedura aldebikotasun, kontraesan, idazketa eta berehalakotasun printzipioetara egokituko da, eta era honetan antolatuko da:

- a) Salaketa formal baten edo ofiziozko salaketa baten bidez hasiko da, Erakundeak ekintza zigorgarri baten berri izaten duenean, zeina Presidenteari helaraziko zaion.
- b) Presidenteak karguen agiri bat egingo du eta ustezko arau-hausleari helaraziko dio –behar bezalako bermekin–, eta honek idatziz erantzun ahal izango du, jasotzen duenetik 15 egun naturaleko epean.
- c) Bi idatziak, batutako aurrekariekin, Gobernu-batzarraren mende egongo dira, zeinak, beharrezkotzat jotzen dituen aurretiko ikerketen ondoren, egoki den ebazpena emango duen, egiten den lehenengo bileran.

### **IX. TITULUA**

#### **DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA**

#### **44. artikulua: DESEGITEA**

Erakundea Batzar nagusiaren akordioagatik desegin ahal izango da, ondore horretarako elkartua, honako arrazoi hauetako batekin:

- a) Bere helburua edo gizarte-xedea desagertzen denean edo hura amaitzea ageriki ezinezkoa denean.
- b) Bazkide arruntak eta Onuradunak deuseztatzea edo desagertzea.
- c) Erakundeari emandako administrazio-baimenak ezeztatzea.
- d) Erakundea zatitzea edo batekin bat egitea.
- e) Erakundearen jarduera ondoz ondozko bi ekitalditan gelditzea edo etetea, horretarako arrazoirik izan gabe.
- f) Bazkide sustatzailearen edo Gobernu-batzarraren eskaera arrazoituagatik eta Batzar nagusiaren erabakiagatik, aplikatu beharreko araudian ezarritako gehiengoekin.

- g) Estatutuetan ezarritako baldintza betetzea.
- h) Araudiaren arabera ezarritako baldintzen eta epeen berronkatze-plan bat ez betetzea edo hura betetzeko ezintasuna.
- i) Indarrean dagoen araudiak edo Estatutu hauek beharrezko gisa ezarritako desegite-kausaren batengatik.

#### **45. artikulua: LIKIDAZIOA**

Desegitea onartu ondoren:

- a) Likidazio-aldia irekiko da, bat-egite edo zatiketa kasuetan izan ezik. Garai horretan zehar, erakundeak bere nortasun juridikoari eutsiko dio eta bere izenari "likidazioan" adierazpena gehituko dio.
- b) Batzar nagusiak likidatzaile bat edo gehiago aukeratuko ditu, bere kideen artean eta kopuru bakoitian nahitaez, eta lan horren ordezkari ordainsaria jaso ahal izango dute. Horiek indarrean dagoen araudian ezarritako moduan egingo dute likidazioa.
- c) Gobernu-organoek beraien ordezkari-funtzioekin jarraituko dute eta likidatzaileei egokitzen ez zaizkienak burutuko dituzte.
- d) Une oro indarrean dagoen araudiak aurkakoa ebazten ez badu, likidazio-eragiketak egin ondoren soberakina baldin badago, Bazkide sustatzaileari itzuliko zaio.